

# 21 >

## EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO, ETIKA OINARRI HARTUTA

### Bake eta bizikidetzaren arloa

Baketik Gipuzkoako hainbat herritan martxan dituen proiektuen baitan, hitzaldi, ekitaldi eta aurkezpen ugari antolatu dira bakearen eta bizikidetzaren arloan.

- 1 > Horrela, Lasarten urriaren 5ean *Memoria partekatu baterantz*, Lasarte-Orian 1956tik 2016 bitarte izan diren giza eskubideen urraketari eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena aurkeztu zen, Argituzek egina. ([Dokumentua eskuratu dezakezu hemen](#))
- 2 > Lasarteko bakearen aldeko herritar taldeak, bestalde, bakea, bizikidetzaren eta memoriaren inguruko [zine ziklo](#) bat antolatu zuen. Irailaren 12an "Izarren Argia" filma proiektatu zen, 14an "Oinatz galduak: 80. hamarkada" dokumentala ikusi eta solasaldia izan ziren, eta 19an "Glencree" dokumentalarekin amaitu zen zikloa, azken honetan Maixabel Lasa eta Lourdes Zabalzak hartu zuten parte solasaldian.
- 3 > Elgoibarren, azaroaren 7an *Memoria partekatu baterantz*, Elgoibarren 1956tik 2016 bitarte izan diren giza eskubideen urraketari eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena aurkeztu zen, Argituzek egina. ([Dokumentua eskuratu dezakezu hemen](#))

- 4 > Era berean, Elgoibarko bizikidetzarako herritarren taldeak jardunaldi parte-hartzaile bat antolatu zuen joan den azaroaren 20an, Elgoibarren bizikidetzara eraikitzeko xedean, herritarren arteko elkarrizketa sustatzeko. Bileran herritarrek eta udal-ordezkariek hartu zuten parte eta egungo bizikidetzaren egoeraren diagnosi bat egin zen bertan, hobekuntzarako oztopo nagusiak identifikatu eta etorkizunerako erronka eta helburuak proposatzearekin batera.
- 5 > Gainera, plan beraren baitan, eskolan balio etikoak sustatzeko bi antzerki forum saio egin dira abenduaren Elgoibarko ikastetxe batean.
- 6 > Legazpin, azaroaren 14an eta 21ean bi zine-forum saio egin ziren. Lehengoan Xuban Intxaustik zuzenduriko "In Dialogue" dokumentala proiektatu zen, eta Paul Riosek parte hartu zuen ondorengo solasaldian; bigarren saioan "Glencree" dokumentala ikusi eta solasaldia izan zen Axun Lasa eta Iñaki Garcia Arrizabalagaren parte-hartzearekin.
- 7 > Andoainen, abenduaren 19an Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bizikidetzara Lantzen programak sustatzen dituen herritarren foroaren inguruko mahai ingurua egin zen; bertan parte hartu zuten Lasarte-Oriako eta Tolosako herritar foroetako kideek.
- 8 > Beasainen bizikidetzarako herritarren taldeak "[Elkarbizitza eraikiz](#)" programa antolatu zuen; hala, urria eta azaroan hainbat ekintza egin zituzten (hitzaldiak, antzerkia, jardunaldiak, zinea...) eta herriko ehundik gora lagun ezagunen babesia izan zuten.
- 9 > Plan beraren baitan, ikastetxe guztietako ordezkariak osatutako Hezkuntza Mahaia martxan jarri zen uztailan eta formakuntza jardunaldi bat antolatu zen. Iraila eta abendua bitartean eskolan balio etikoak sustatzeko bi antzerki forum saio egin dira herriko bi ikastetxetan eta ikastetxe bateko irakasle taldeari izan proposamenaren inguruko formakuntza eskaini zaio.

## Elkartasun arloa: Izeba Proiektua

- 10 > Denbora epe honetan zortzi harreman berri egin dira adin txikiko pertsona tutelatuak eta familia edo pertsona boluntarioen artean. 2017a amaitzean Izeba Proiektuak 51 harreman ditu martxan familia boluntario eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespeko adin txikiko pertsonen artean. Aipagarria da ere, 52 gaztek harremana mantentzen dutela euren Izeba familiarekin, jada Aldundiaren babespean ez dauden arren.
- 11 > Urriaren 19, 20 eta 21ean Izeba Proiektua Gizarte-Langintzako XIII. Estatuko eta Iberoamerikako Kongresuan egon da. Arlo honetako ekitaldi profesionalik handiena izaki, 1.300dik gora lagun elkartu ziren Meridan. Kongresuan Izebak honako komunikazioa aurkeztu zuen: "Izeba Proiektua: pertsona adingabe tutelatuentzako sare sozial boluntarioaren laguntzaren garrantzia Gipuzkoan".
- 12 > Irailan Izeba Proiektuarekin bat egin du, Gizarte-Langintzako Graduoko praktikak egiteko, Deustuko Unibertsitateko ikasle batek. Ikasturteko lehen lauhilekoa amaituta, egiten den balorazioa positiboa da, eta bere parte-hartzea eta praktika profesionala gero eta aktiboagoa.

## Formakuntza arloa

- 13 > Formakuntza arloan Baketik akordioa batera heldu da Tolosako Herrikide Ikastetxearekin bigarren urtez jarraian, Baketik programaturiko ikastaroak bere instalazioetan eskaintzeko. Honela hiru ikastaro eskaini dira udazkenean: "Pertsona izaten hezi I eta II" (urriak 28 eta azaroak 18), hezkuntza munduan interesa duten pertsonen zuzendua, eta "Sufrimendua ulertzen" (abendua 16), sufritzen ari diren pertsonen orientabidea emateko edo inguruan sufritzen ari direnei laguntzeko pentsatua. Azkenean programaturiko ikastaroetako bat burutu da.
- 14 > Bestetik izan proposamenari eta Bizikidetzara pedagogiari buruzko hainbat ikastaro eskaini dira, espresuki eskatu duten hainbat ikastetxerentzat eta erakunderentzat. Bizikidetzarako zine forum saioa ere antolatu da Asteasun.

## Hezkuntza arloa

**15 >** Sei hileko honetan hezkuntza arloko taldeak Antzerki Forumean jarri du arreta. Guztira 51 Antzerki Forum saio egin dira Gipuzkoa eta Nafarroako ikastetxeetan, eskola jazarpenaren prebentzioaren eta kultur eta familia aniztasunaren sustapenaren inguruan.

**16 >** Nafarroako Gobernuako Bake eta Bizikidetzako Departamentuak lurraldeko ikastetxeei eskaintako jarduera eskaintzaren baitan, Baketiketik eskolan balio etikoak sustatzeko Antzerki Forum saioak eskaini ditu. 2017ko urria eta abendua artean 37 saio egin dira, guztiak kultur eta familia aniztasuna sustatzera bideratuak. "Zure azalean" antzezlanean oinarritu dira saioak eta Antzerki Forumaren oinarrietatik abiatuta garaturiko metodologia propioa erabili da. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailako, lanbide heziketako eta unibertsitate mailako ikasleekin jardun da. Guztira 14 urtez gorako 1.000 ikasle inguruk parte hartu dute.

**17 >** Gipuzkoako ikastetxeetan ere eskolan balio etikoak sustatzeko hamalau Antzerki Forum saio antolatu dira. Zehazki eskola jazarpenaren prebentziorako eta kultur eta familia aniztasuna sustatzeko saioak burutu dira Alegia, Altzo, Asteasu, Beasain, Elgoibar, Hernani, Orio eta Urnietan. Nabarmendu behar da Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Sailak hamaika saio lagundu dituela diruz, Mikroekintzak programaren eta bizikidetzarako udal proiektuen bidez.

**18 >** Bestalde Izan Proposamenari eta Bizikidetzari pedagogiari buruzko hiru ikastaro eta hitzaldi eskaini dira. Pertsona izaten hezteko ekimena da honakoa eta Tolosa zein Beasainen landu da.

**19 >** Sei hileko honetan Baketiketik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuarekin eta Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Kooperazioaren Idazkaritza Orokorrarekin elkarlanean jarraitu du, biktima hezitzaileen testigantzen Adi-adian ekimenean parte hartuz. Bertan biktimen zuzeneko testigantzak ahalbidetu dira ikastetxeetan.

## Zine zerbitzua

**20 >** Baketiketik hamar film berri gehitu dizkio hobeto bizi, elkarbizi eta hezteko zinemarako Bideotekan eta haien gida didaktikoak ere egin ditu. Zerbitzu honetako pelikulak Baketiken egoitzan daude, nahi duten pertsona, talde edo zentrok doako maileguan hartzeko. Honakoak dira gehitutako izenburuak:

El erizo (Mona Achache, 2009)  
La piedra de la paciencia (Atiq Rahimi, 2012)  
Her (Spike Jonze, 2013)  
Belleza oculta (David Frankel, 2016)  
Frozen (Walt Disney, 2013)  
Menudos Héroes (varios, 2015)  
Patch Adams (Tom Shadyac, 1998)  
Incendies (Denis Villeneuve, 2010)  
El atlas de las nubes (The Wachowskis & Tom Tykwer, 2012)  
Ma ma (Julio Médem, 2015)

**21 >** Urtero bezala, bestalde, Baketiken Bideoklub zerbitzutik hobeto bizi eta elkarbizitzeko aukeratutako hamar film bidali zaizkie bazkideei. Aurten 60€-koa izan den kuota baten truke, edozein pertsona, ikastetxe edo erakunde film sorta bat eta horien gida didaktikoak jasotzen ditu urte amaieran, Hau izan da 2017ko aukeraketa:

Martín (Hache) (Adolfo Aristarain, 1997)  
American History X (Tony Kaye, 1998)  
Amama (Asier Altuna, 2015)  
El niño con el pijama de rayas (Mark Herman, 2008)  
Brave (Indomable) (Pixar & Disney, 2012)  
El club de los poetas muertos (Peter Weir, 1989)  
Ma ma (Julio Médem, 2015)  
En un mundo mejor (Susanne Bier, 2010)  
La fuerza del cariño (James L. Brooks, 1983)  
La vida secreta de las palabras (Isabel Coixet, 2005)